

AITOR OSA IBANESTO.COM TALDELKO KARRERISTA



XABIER USABIAGA

«Proba handietan aurrean ibili naitekeela erakutsi diot taldeari»

Aitor Osak maila bikaina eman du Espainiako Vueltan. Aurreneko euskal txirrindularia izan da sailkapen nagusian —9. postuan—, eta mendiko etapetan onenen mailan aritu da itziartarra.

ESPAINIAKO VUELTA

«Salamancatik abiatu ginenean, sinatuko nuen Vueltan bederatzigarren amaitzea, baina aukeran etapa bat irabaztearen truke aldatuko nuke»

TALDEAREKIN GORABEHERAK

«Tourretik kanpo geratu ginenean ika-mikaren bat izan genuen taldearekin, baina Vueltan bat maila onean aritzen denean ez da arazorik izaten»

Ekaitz Agirre | DONOSTIA

Eguraldiak bizikletan ibiltzeko gonbitarik egin ez arren, atzo goizean entrenatzen aritu zen Aitor Osa, euripean. Espainiako Vuelta igandean amaitu arren, denboraldia ez baita amaitu ziklistentzat. Orain arte egindakoaz eta egiteke dagoenaz hitz egin dugu itziartarrarekin.

■ **Igandean amaitu zen Espainiako Vuelta. Bederatzigarren postuan amaitu zenuen, aurreneko euskalduna. Gustura al zaude egindakoarekin?**

Bai. Salamancatik abiatu ginean sinatuko nuen Vueltan bederatzigarren amaitzea. Aukera edukita, ordea, etapa bat irabaztearen truke aldatuko nuke sailkapena, baina gustura nago egindako lanarekin.

■ **Etapara garaipena ez duzu lortu, baina ez da izan saiatsu ez zarelako.**

Saiatu bai, baina indar pixka bat falta izan dut etaparen bat irabazteko.

■ **Taldeak ere maila bikaina eman du. Bost etapa garaipen, mendiko sailkapena, erregularitatea, taldekako sailkapena. Ezin gehiago esatu.**

Egia da. Vuelta hasieran inork ez gintuen aintzat hartzen. Madrila iristean, aldiz, bai. Salto handia egin genuen hasieratik amaierara, hiru aste zehar. Bost etapa irabaztea eta gainera, zuk esan bezala, beste hiru sailkapen horiek ere eskuratzea ez dago batere gaizki ez.

■ **Sailkapen nagusirako borrokan txirrindulari bat falta izan duzue. Lastima Juan Miguel Mercadoren azken aste-beherakada.**

Lastima bai, baina indarrak ez zuelako geratu da podiumetik kanpo Mercado. Despiste batengatik podiuma galtzea litza-teke lastima, baina besteak indartsuago daudenean ezin da ezer egin, eta beste ziklista batzuk indartsuago zeuden.

■ **Frantziako Tourretik kanpo geratu zinen. Espainiako Vueltan egindakoarekin atara al duzu arantza hori?**

Bai, nik uste baietz. Gogo handiekin ekin nion Vueltari, proba

handietan aurreko postuetan ibiltzeko txirrindulari baliagarria naizela erakutsi nahi nuelako.

■ **Tourretik kanpo geratu ondoren, izan zenuten bi anaiek ika-mika ibanesto.com taldearekin. Ondoren, bi urterako berritu zenuten kontratua. Harremanak bideratu al dira?**

Bai, Tourretik kanpo geratu ginen garai hartan izan genuen ika-mika pixka bat, baina Vuelta hasi aurretik gauzak bere onera itzuli ziren, eta Vueltan bat maila onean aritzen denean ez da arazorik izaten.

■ **Taldeak behintzat ez du zuen kezarik izango, hiru asteko itzulietan zuek izan zaretelako ibanesto.comeko txirrindulari onenetakoak.**

Beno, Vueltan Mercado nire aurretik sailkatu da, baina bai, erakutsi diegu ez direla damutuko guri bi urterako berritu izanaz. Unai hirugarrena izan zen Giroan eta ni bederatzigarrena Vueltan.

■ **Denboraldia amaitzeko Munduko Txapelketak falta dira. Larunbatean emango dute zerrenda, baina zu Lisboan izango zarela ziurtzat ematen da. Zein asmorekin joango zara?**

Egia esan, niretzat aukera gutxi izango da, Oscar Freirentzat lan egin beharko baitugu. Ihesaldiren batean sartzen ahaleginduko naiz, eta tropela hausteko ahaleginetan adi egoten ere bai.

■ **Denboraldia amaitzean da. Pentsatzen dut indarrak ez dituzula soberan izango.**

Bai, urrian gaude eta hori igarri egiten da. Munduko Txapelketak jokatu beste hiru klasiko korrituko ditut, Italian. Hilaren 20an izango da azkeneko proba. Horiek amaituta bizikleta ganbarara.

■ **Aurten egindakoaz zer balorazio egiten duzu?**

Denboraldiaren aurreneko erdian, Euskal Bizikleta jokatu arte, gaizki ibili nintzen. Arazo fisikoak izan nituen eta ezinean aritu nintzen. Hortik aurrera, ordea, hobetu egin nuen eta itxurazko denboraldi amaiera ari naiz egiten.